

Astekaria

BARREN

elgoi

Nazioarteko VII. Folklore Jaialdia



AZKUE



ARTEGI

IRUDIA ETA SOINU
ELEKTRATRESNAK

ESKAINTZA BEREZIAK

- ▶ COMBI WHIRL POOL 1,80 x 55..... 69.900
- ▶ HOZKAILUA 1,40 x 52,5 42.900
- ▶ GARBIGAILUA 400 R.P.M. 34.500
- ▶ SAMSUNG TB 20" M/D Eurokonektorea 33.900

3 LAU HANKATAN

"Nik ere badakit zerbait Mazzantiniri buruz, eta haruntzago joango naiz" **Hasier Etxeberria.**

6 ERREPORTAIA: SAINT GERONS: 100 URTETIK GORA TXOKOLATEGINTZAN

Mendaroko Azpilgoeta auzoko Ostatu-Berri etxera sartu eta txokolate usaina berehala sartzen da sudurzuloetatik.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: OPORRETAN MENDIA ALA HONDARTZA?

Jokin Iriondo: "Bakardade edo lasaitasun bila ibiliz gero, mendira joatea da irtenbiderik onena."

Andoni Etxeberria: " Hondartzara heltzerakoan, kriston ataskoa pasa ondoren tokia hartu behar dut"

11 MENDAROKO JAIK

16 BERBETAN: Jose Oñederra eta Modesta Iriondo:

"BORONDATE HANDIKO JENDEA EZAGUTU DUGU"

18 KIROLA:

GAIA: IZARRAITZETIK NANGA PARBAT-ERA ESPEDIZIOA GAILURREAN

ELKARRIZKETA: **Jon Rementeria**

"FAMILIXATIK URRUTI EGOTIA KENDUKO NABAN SASKIBALOITIK"

21 KULTURA

ELGOIBARKO NAZIOARTEKO VII. FOLKLORE JAIALDIA

TXANDAK

FARMAZIAK:

24, larunbata: **ORMAZABAL**

25, igandea: **ORMAZABAL**

26, astelehena: **BIDASOLO**

27, asteartea: **BIDASOLO**

28, asteazkena: **ORMAZABAL**

29, osteguna: **ORMAZABAL**

30, ostirala: **ETXEBERRIA**

OKINDEGIAK:

25, igandea: **ZABALETA**



PREMIAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak741155

Txanda hartzeko.....743354

Alkoholiko Anonimoak740385

D.Y.A (anbulantzia).....464622

Gurutze Gorria743864

Mendaroko Ospitala.....756264

Drogomenpekotasun Zerbitzua

(Anbulatorioa)743936

Odol Emaileen elkarte.....741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.740442

PESA (Eibar)112131

Taxi Geltokia740898

UDALA

Euskara Zerbitzua744366

Kultura eta Kirol Zerbitzua...742158

Mendaroko Udala756100

Ongizate zerbitzua743736

Udaletxea741050

Udaltzaingoa741394

BESTELAKOAK

Caritas740142

IMI741196

Kontsumo Bulegoa (OMIC) .743088

Liburutegia.....743525

Musika Eskola.....742145

Polikiroldegia.....741361

Postetxea741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza740296

Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79

I.M.H.....74 41 32

Institutua74 02 67

Ikastola.....74 27 00

L.H.I.....74 31 00

Pilar Ikastetxea.....74 13 31

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12

Argitaratzailea
Elgoibarko Izarra
Laguntzailea
Elgoibarko Udala
Zuzendaritza
Itziar Agirregomezkorta,
Alberto Agirreazaldegia
Hizkuntza Arduraduna
Anjel Ugarteburu
Erredakzio kontseilua
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,
Jose Inazio Sarasua
Kazetaria
Ainhoa Lodoso
Maketatzailea
Maite Rementeria
Publizitatea
Amaia Leiaristi
Administrazioa
Josune Fernandez,
M. Angeles Ortuoste
Kolaboratzaileak
Myriam Aldazabal, Alberto
Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin
Arregi, Belen Arrizabalaga,
Bertso Eskola, Agur Miren
Barandiaran, Hasier Etxeberria,
Maite Iriondo, KOKOE, Imanol
Larrañaga, Koldo Lizarralde,
Aitor Lodoso, German
Meabebasterretxea, Jasone
Osoro, Diana Perez de Albeniz,
Lorea Perez de Albeniz,
Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
Banaketa arduradunak
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
Inprimategia
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
Tirada: 3.000 ale
Lege gordailua: SS-1.038/92
ISSN: 1133-021X
elgoi**BARREN**ek ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien
erantzunkizunik.



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak diruz
lagundutako aldizkaria

LAU HANKATAN



Hasier Etxeberria

Ikonoklastia

Santuen iru-
diak apurtzen
ditudenari esa-

ten zaio ikonoklasta. Polit eta eder dago-
en gauzaren aurpegi zatarrak aideratzen
duenari ere, ikonoklasta deitzen zaio
gaur egunean. Hara hemen adibide bat:

Duela pare bat asteko **BARREN**en
Mazzantiniri buruzko lan hartan, Jaun
ospetsu eta dotore gisa agertu ziguten
toreatzaile elgoibartarra. Ederki, oso
ederki. Baina nik ere badakit zerbait
Mazzantiniri buruz, eta haruntzago joan-
go naiz. Ba al dakizue Mazzantini gona-
zale amorratua izan zela eta bere andrea-
ri latzak eta gorriak pasarazi zizkiola
gizon arimagabeak? Ba al dakizue bere
ausart fama guztia pikutara joan zela
egun batean, emakume baten erruz
Madrilen antolatutako duelo batera ager-
tu beharrean, ospa ihes egin zuelako?
Hara hor gizon haundia, bapatean, kol-
dar lotsagarri bihurturik. Hara hor ikono-
klastia ariketa bat.

Gaur, oporrak direla eta, zuek hain
pozik zaudeten honetan, gaizto samartu-
ta esnatu naiz eta ni ikonoklastia lantze-
ko gogo baten menpe nago.

Oporren irudi ederra bota nahiko
nuke behera. Hainbeste jende dago lan-
gabeziaren opor derrigortuetan. Hainbes-
te eta hainbeste sosik atera ezinean
dabiltzanak. Ez konta horiei Honolulura
zoaztenik. Ez esan hondartzetan etzanda,

zakur alferren antzera egingo duzuela
hilabete.

Izan ere, gauza guztiak ikuspuntu-
aren araberrakoak dira. Gogora datorkit
fabula zahar bat, ez dakit ziur Borgesena
ala Monterrosoarena ote den, guti gora
behera honela zioen: "Egun batean,
zelaiaren erdian zebilen txingurri txiki
bati galdetu zioten ia zein zen mundu
guztiko piztiarik beldurgarriena. Batere
zalantzarik gabe erantzun zuen txingu-
rriak: *animaliarik krudelena ardia da*.
Harri eta lur geratu ziren hura entzun
zutenak. Ezin zuten sinestu ardia bezala-
ko abere umil eta ederra, unibertso
piztiarik txarrena zenik. Baina txingu-
rriak berehala atera zituen zalantza har-
tatik: *Hara, ardiak belarra jatera dato-
rrerenean, ikusi ere ez gaitu egiten eta
zapaldu egiten gaitu bere hanka beldur-
garriekin edo belarrarekin batera, iren-
tsi*. Hori entzun zutenean, abererik onena
zein ote zen galdegin zioten eta tigre
zela eran-tzun zuen txingurriak, hain
zuzen ere ardi guztiak hiltzen zituelako".

Hara hor gauza berak aurpegi ezber-
dinak dituela frogatzen duen parabola.
Antzeko zerbait gertatzen da oporrekin
ere: batzurentzat zoriona dena, beste ba-
tzurentzat gurutze bihurtzen da.

Zergatik diodan guzti hau? Zergatik
nagoen hain gaizto? Zuen oporretako
lehen eguna, nere laneko lehen eguna
delako. Mekauen zotz.



DEKORAZIOA

PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero
OKINDEGIĀ
OPILEDGIĀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

Udalak Errotatxori erantzuten dio

Drogaren prebentzioari buruz, Udalak antolatzen dituen ihardun batzuk adieraziz, Gizarte Prestakuntza Batzordeko zinegotzi eta presidentea denari egindako neurrigabeko erantzun eta izen ona kenduz, herritarrentzat oso garrantzitsuztat jotzen ditugun zehaztapen batzuk egin nahi ditugu.

Behin eta berriz Errotatxo taldeari gogorarazten diogu, eta hemen Gizarte Prestakuntzako Batzordeko Lehendakaria ere barne dago, eta hor Udaletxe honek, egin behar hau betetzen duten Era-kunde Ofizialekin etengabeko harremanak izanik drogaren aurkako aurrehartze ihardunerako erizpide bat du urtez urte, eta erizpide honetan oinarrituz, drogomenpekotasuneko aurrehartzerako teknika bat dugu Elgoibarren eta eskoletako, gurasoen etab. egitarau batzuek betetzen dira eta kirol eta kultur

motako ihardun batzuek bultzatu.

Talde honen helburua drogaren aurkako aurrehartze iharduna dela uste dugu. Honetarako bat gatoznetan gure adore eta laguntza izango dute, nahiz eta azkenaldi honetan; adibidez azkenengo mahaingurura bertatik etorri zen ordezkarengan ikusitakoaren bidez, gure uste-tan, politikari dagozkionetan arreta gehiago jarri gizartearekikoetan baino. Eta gai politikoak eztabaidatzeko badaude alderdi politikoak, nahiz eta askotan ados jarri ez.

Dena den ez dugu zalantzarik, bai talde honetan eta gehiengoetan bezala, borondate oneko pertsonak direna; baita daude beste batzuek, talde hauetan babestuz nahiz eta helburuak errespetagarriak izan, talde lañarekin zerikusirik ez dutenarako ahalegintzen direnak ere.

Ez dugu zalantzarik gizarte honen alde elkarrekin eta herritar guztien laguntzarekin taiuzko eran lan egiteko ahalbide haundiak dituguna.

Udala



Publizista berria BARRENeN

Betirako inor eta ezer ez denez, gurean ere hasi dira joan-etorriak. Amaiak lagatzen gaitu eta Nekaneri egin diogu ongi-etorria. Amaiak esan digunez *“gustora ibili naiz lan honetan eta eskerrak eman nahi dizuet nere jardunak entzun eta publizitatea egin duzuon guztioi”*. Nekanerekin beste horrenbestean portatzen bazarete...

PESA GRUPO

AUTOBUSEN ALOKAIRUA

Ez ezazu bizimodua konplikatu, alokatu autobus bat nahi duzunean, nahi duzuna egiteko.

19 eta 55 pertsonako autobusak

☎ 11 21 31 - 21 95 55

ASTE BUKAERA LOURDESEN

| | | |
|----------|------|-----------|
| Bilbo | 7,45 | 2.500 pta |
| Donostia | 9,00 | 2.000 pta |
| Gasteiz | 6,30 | 2.600 pta |
| Arrasate | 7,15 | 2.500 pta |
| Bergara | 7,30 | 2.400 pta |
| Eibar | 8,00 | 2.250 pta |
| Elgoibar | 8,10 | 2.250 pta |

Gaua bertan pasatu nahi baduzue deitu **PESA GRUPO**ra.

Informazio gehiago zure bidai agentzian edo telefono hauetan izango duzu:

(94) 416 87 77 (94) 416 89 55



Aste honetako erretratua **Maria Luisa Gurrutxagak** lagatakoa da. Berau 1950-51. urtean Plaza txikiko “Escuela Nacional”etan ateratakoa omen da.

Maria Luisak esan digunez 14 urte arte egoten ziren eskola publikoetan, gero, dirua zutenek, Mendaroko monjetara edo Señorita Anitaren gana joateko. Ikasten segitzetik ez zutenek, berriz, josten ikasten edota “emakumeentzako” lanen bat egitera joan behar izaten zuten.

Besterik gabe, ikus dezagun zeintzuk diren erretratuaz azaltzen diren neska gazteak. Goitik hasita ezke-

rretik eskumara:

1. Igo iladan: Nieves Iriondo, Nieves Unzueta, Mari Lore Gorostiza, Rosi Iriondo, Mari Tere Irureta, Maria Luisa Ondarza eta Jaione Iriondo.

2. iladan: Consuelo Arribas andereñoa (Valladolidkoa), Itziar Garzia, Roca Mari Murua, Begoña Ibarluzea, Pilar Osoro, Mari Sol Iriondo eta Maria Luisa Estarta.

3. iladan: Mari Sol Arakistain, Begoña Andonegi, Maria Luisa Gurrutxaga, Maria Elena Nicolas eta Azucena Compañon.

— AGUAS —
ALZOLA
 — URAK —

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIAK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
 Errosario 15 Behea.

PUB

elgoibar

Saint-Gerons: 100 urtetik gora txokolategintzan

Mendaroko Azpilgoeta auzoko Ostatu-Berri etxera sartu eta txokolate usaina berehala sartzen da sudurzuloetatik. Antonio Saint-Gerons eta bere emaztea haren aitonak hasi zuen tradizioaren jarraitzaile dira. Duela bi urte, aitonaren etxea goitik behera berritu zuten baina den dena, hasieran zen bezala gorde nahi izan dute, txokolatea egiteko modua batez ere.

1850. urtean Antonio Saint Geronen aitaren aita, Juan Mari Saint Gerons, Mauleko Larrori auzoan jaiotakoa, Frantziatik Errezilera etorri eta bertako neska batekin ezkondu zen. Handik Mendarora etorri ziren eta oraingo etxe berean ostatua jarri zuten. Negozio horretatik izena baino ez zitzaion gelditu etxeari. Juan Antoniok negozioz aldatzea erabaki zuen nonbait eta Bilbora txokolategintza ikastera joan zen. Sasoi hartan 4 txokolategile omen zeuden Elgoibarren eta 100 bat Gipuzkoan zehar. Ogibide aski hedatua.

13 seme-alabetatik batek bakarrik jarraitu zuen

Txokolate goxoa egiteak sekreturik daukan galdetu diogu Antoniori. Lehengai ona erabiltzea omen da, bere esanetan, sekretu bakarra.



↳ Kakaoa xehetzeko erabiltzen duten hiru errodiloko errota.

aitaren lanarekin, Pedrok, eta horretan jardun zuen 80 urte bete arte. Pedro Saint Geronsek, Antonioren aitak, eman zion Saint Gerons txokolateari daukan izena eta entzutea. Txokolatea, Gipuzkoan saltzen da batez ere, baina hemendik kanpo toki askotan da eza-guna.

Gaur egun, hiru langile dira Saint Gerons txokolate

lantegian daudenak. Den dena eskuz egiten dute. Prozesu osoa artisaun lanean da, enpaketatua barne. Txokolate beltza edo urteko txokolateaz gain, kakao hautsa, kakao azukrearekin eta azukrerik gabe, bonboiak, trufak, esnetxokolatea eta beste barietate batzuk egiten dituzte.

Txokolate goxoa egiteak sekreturik daukan gal-

detu diogu Antoniori. Lehengai ona erabiltzea omen da, bere esanetan, sekretu bakarra; kakaoa eta azukrea, txokolategile eta gozoginek azken mendeotan egin izan dutenaren antzera. Kakaoa, "Bahia" bariatatekoa, bere horretan jasotzen da, baba baten itxura eta tamainaren modukoa. Birfindu gabeko azukrea erabiltzen dute eta horregatik itxuraz zakarra da Saint Gerons txokolatea.

Txokolatea egiteko lehendabizi kakaoa erre egiten da kobrezko ontzi lau eta zabal batean. Sua azpian, kakao aleak pala batekin etengabe mugiarazten dira. Segidan, erretako kakaoa triturore batetik pasatzen da berau txikitze-ko eta alea azaletik banatzeko. Berehala kakaoa eho egiten da. Izan ere, hauxe da elaborazio prozesu oinarrikoa. Kakaoa ehotzeko harri baten gainean bueltak ematen dituen hiru errodiloko errota erabiltzen da. Harriak 35-40 gradu bitarteko tenperaturan egon behar du; beti ondo bero. Azpian dagoen sutontzi batek berotzen zuen harria, baina gaur egun, erresis-



↳ Txokolatea egiteko prozesu osoa artisauro lana da, enpaketatua barne.

tentzia elektriko batez ordezkatu da. Kakaoa, tolbatik erortzen da errotaren erdigunera eta errodilok, bueltak ematean, txikitu egiten dute. Kakaoak, txikitzerakoan, koipe mikatsa botatzen du eta hori azukre beroarekin nahasten da. Berriz, errotatik bi aldiz pasarazten da.

Azkenik, gozogileak txokolate masari itxura ematen dio eta moldeetan sartuz, 175 gramoko tabletak egiten ditu. Hoztu ondoren, Saint Gerons izenarekin marraztutako paperean biltzen dira jateko prest.

Txokolatea katiluan

Litro bat egiteko, honoko hau behar da:

-10 ontza txokolate

-litro erdi esne

-litro erdi ur

Likidoa berotzen jarri, aurrez txikilutako txokolaterekin. Irakin eta etengabe eragin. Txokolate ona gutxi irakin behar da eta ondo eragin. Txokolatea harri aurretik minutu batzutan laga.

LANDA

ERRETEGIA

BEREZITASUNAK

♠ LEGATZA CHANPAN ERARA
♠ GANBA ETA INTXAUR PUDING-A

Jaiak ondo pasatu !!

Garagarza, 32 ☎ 75 60 28

Oporrak mendian ala hondartzan?

Lehendabizi bereiztu egingo nituzke uda eta neguko oporraldiak. Mendira urte guztian zehar joan zaitezke. Ni udazken, negu eta udaberrian mendira joaten naiz astebukaera gehienetan, oinez ez bada bizikletaz. Baina eguzkiak gogotsu jotzen duen urtaro honetan, kostaldera hurbiltzea egokiena dela iruditzen zait.



Bakardade edo lasaitasun bila ibiliz gero, mendira joatea da irtenbiderik onena. Baina kostaldean lasaitasuna ere aurki daiteke; ez duzu iparraldeko hondartzetara joatea besterik. Kilometroak eta kilometroak dituzte eta kanpinak edo bunga-loak nonahi.

Kostaldean eguzkia eta bainu soil bat hartzeaz gain kirol asko egin daitezke. Submarinismoa, piragua, bela, surfa, windsurfa, uretako eskia. Gainera, hondartzan palan jolastu, futbol partiduak, voleibolean ibili e.a. egin daiteke.

Hondartzaren aurka egitea oso erraza da, igande sargoritsu batean Deba edo beste kostaldeko hondartza bat jartzan baduzu adibide bezala. Ados nago egun horiek agobiantek direla eta ni ere ez naiz egun horietan hondartzara hurbiltzen. Baina goizean goiz joateko

aukera izanez gero eta hamabiak aldera alde egin, beste gauza bat da.

Mendiak udan (eguraldia ziurragoa duzun arren) espektakularitatea galtzen du. Niri mendiak elurtuak eta errekek urez gainezka ikustea gustatzen zait.

Mendian gehiegizko beroaz eta ur eskasiaz aparte, niretzat, pisuzko beste arrazoi bat, tontakeria bat dirudien arren, "moskito" edo eltxoak dira. Inguruan paisaia polita izan arren, moskitoei, nola esango nuke, piskat izorratzen dute.

Kostaldeko herriek uda garaian bizitasun berezia hartzen dute. Terrazak, festak... udako ambientilloa, hitz batean.

Txikitatik uda guztiak kostaldean igaro ditut; itsasoa eta uda erlasionaturik daude niretzat. Mendizalea sentitzen naizen arren, uda kostaldean igarotzea nahiago dut.

Jokin Iriondo



Nahiz eta oporrek igarotzeko mendia aukeratu hondartzara ere gustura hurbiltzen naiz, atsedenaldi txikiak hartzera. Udako eguzkiak

daukan gauza hoberena, ematen duen kerizpea da, eta hondartzara doan jendeak kerizpea aurkitu ezin badu ere, berau sonbrilla baten bidez lor dezake.

Kerizpea beti eguzki berdina izango da, baina toki ezberdinetan. Horregatik nahiago det mendiko baso eder eta paketsu baten kerizpe lasaia, eta ez jendez gainezka dagoen hondartza zikin eta zaratatsu baten kerizpe artifiziala.

Hondartzara helterakoan, kristoren ataskoa pasa ondoren tokia lortu behar duzu, zure inguruan dagoen jendea jasan, umeak, hondarra, eta batere gustukoa ez duzun musika entzun.

Gainera, hondartza gehienetan, zoritxarrez, bainatzea debekaturik dago edo arriskutsua da osasunarentza; ez da horrela gertatzen, mendi tontor batera igo ondoren, erreka edo

potzu batean, txapuzoi fresku bat hartzerakoan betere arrisurik gabe.

Horago aipatutakoa dudak musika entzun baino lehen, nahiago det, baso bat zeharkatzerakoan edota ibai bat gainditzera koan, ur zarata edo txorien kantak entzutea, baita artalde eta bestelako abereen bizitza somatzea ere.

Txorien hegaldiak, zelaietako loreak, goizeko egunsentia eta ilunabarra dira oporretan gehien atsegin ditudan momentu zoragarriak.

Horregatik eta beste gauza askoren gatik nahiago det udako oporrek mendian igarotzea.

Andoni Etxeberria

ETA ZURE USTEZ?

Oporrak mendian ala hondartzan?



Silbia Hernandez
13 urte, ikaslea

Hondartzara juten naiz eta aurten ere hondartzara jun bihar gera; inguruko hondartzetara. Uretan bainua hartzia gustatzen jata.




Manuel Vila
23 urte, ikaslea

Hondartzan jende gehiegi egoten da. Mendian ez dago hainbeste "txomingero". Iaz Pirineoetan egon ginen eta, oso gustura, hondartzan baino gusturago.



Isabel Martin
49 urte, etxeko langilea

Hondartza gehiago atsegin dut; pasia dezakezu, uretan sartu... Mendira joan izan naiz baina ez zait gustatzen. Nahiago dut hondartza.



Eulogio Mancebo
30 urte, Udaltzaina

Mendian egon gera oportetan, Picos de European, eta oso ondo pasatu dugu. Hondartzara ere inoiz joan izan gera baina normalian mendira jotzen dugu.



Jose Emilio Martinez
53 urte, tailer arduraduna

Mendia asko gustatzen zait. Hondartza, berriz, batere ez. Behin hongoak hartu nituen eta ez naiz berriro joan. Mendiak gehiago relajatzen nau.



Mª Victoria Garate
36 urte, administraria

Ez naiz hondartza zalea izan, baina orain, berriz, bai. Trenian joaten ginalako bata bestearen gainean izango da. Gustatzen zait hondartza baina pare bat ordu egoteko.

 **MAPFRE**
ASEGURUAK
Mari Luz Rojo

Mota guztietako aseguruak zure esku

San Frantzisko, 34 Telf: 74 05 82 - 74 14 04

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
- Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

BUZONEOA / KOTXEAK / KARTELAK
POSTA KOMERTZIALA



PUBLIZITATE BANAKETA
ETA PRODUKZIOA

PABLO
LOZANO MORA

San Frantzisko, 56
☎ Ofizina 74 36 42
☎ Etxea 74 38 69



XIRULA
Hanbureseria

Hanburesak
Sandwichak
Saltxitxak
Solomoa
Txanpiak plantxan
Bokatak

Plaza txikia z/g Tel: 74 36 95

Oporrei begira aholkuak

Udako oporrak direla eta, Elgoibarko Udaltzaingoak zenbait gomendio eman nahi die herritarrei oporretan irten aurretik. Kanpoan izango duten helbidea edo telefono zenbakia Udaltzaingoan lagatzea gomendatzen da ezer gertatuko balitz abisua eman ahal izateko. Halaber, etxeko zein lokaletako giltzak konfidantzazko norbaiti ematea eta honen telefonoa Udaltzaingoiari ematea komeni da. Azkenik, animaliak ez baztertea eta argia, ura eta gasaren pasua istea komeni dela gogorarazi nahi du Udaltzaingoak.

Andoni Larrañaga jaietako kartel lehiaketaren irabazle

Elgoibarko jaietako kartel lehiaketan Andoni Larrañaga Castro, 36 urteko elgoibartarraren "Dantzatuko dugu?" lana aukeratu dute irabazle. Andonik 40.000 pezeta jasoko ditu lehen saria irabazteagatik. Andoni Larrañaga Elgoibarren jaiotakoa da eta egun Gasteizen bizi da.

Aipamen berezia, berriz, Aitor Lodosoren "Dirti" lanarentzat izan da. Aitorrek 10.000 pezeta jasoko ditu sari gisa.

Napartheid-en 11. alea Elgoibarren salgai

Napartheid euskal komiki fanzi-nearen 11. alea salgai dago *Txuri-Beltz*, *Lanbroa*, *Oraiko* eta *Oiz-Mendi* tabernetan. 11. ale hau in-tsumisioari buruzkoa da eta aleare-kin batera, "Sarik Sarara" Paxkal Bourgoien-en komikia eta *Gato-Bazka* eranskina oparituko dira. Komiki aldizkariaren salneurria 400 pezetakoa da.



Pasa den ostiral arratsaldean Gazte Asanbladako kideak lau kanpi-nez osatutako kanpamentua inprobisatu zuten Maalako parkean Gazte-txea eskatzeko. "Ordua da, Gaztetxea" lemapean larunbat goiza arte egon ziren akanpatuta Gazte Asanbladako kideak. Izan ere, larunbat goizean Udaltzaingoko bi kide bertara hurbildu eta kanpinak kentzera behartu zituzten. Larunbat arratsaldean Gazte Asanbladako kideak Maalako par-kean kanpinak jarri zituzten berriro eta bertan akanpatuta egon ziren igande goiza arte.



Argazkia, Orhy mendian aterata dago eta Hauexek, Belagoara trabesia burutu zutenetariko batzuk dira. Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, herriko 37 mendizalek Orhytik Belagoara trabesia 7 ordutan egin zuten pasa den astebukaeran. Trabesiaz gain, mendizaleak Orhy eta Anni gailurretara igo ziren. Irteera guztian zehar eguraldi bikaina izan zuten mendizaleok.

Hurrengo irteera irailaren 5ean izango da eta Arlabanetik Urbiarako bidea egingo dute trabesia modura.

MENDAROKO JAIAK 93

Santana eta Santixaoak



ALKATEAREN AGURRA

Lerro hauen bidez, aurtengo Santixao eta Santana jaietako egitaraua aurkeztu nahi dizuet korporazioaren eta neure izenean.

Ilusio haundiz antolatutako jaiak ditugu, atsegin eta alaitasun egunak izango diren itzaropenean.

Eskerronenak jaien antolaketan parte hartu duten pertsona eta elkarteei eta giro jator batean goza ditzagula.

Ezin ditugu ahaztu arrazoi bat edo besteengatik gure artean egoterik izango ez duten lagun eta herritarrak.

Agurrik beroenak kanpotik hurbilduko zareten guztioi ere.

ANTON ZUBIAURRE SORAZU



Ostirala 23

Arratsaldeko 7etan: Jaien hasera. Kalejira Mendaroko BIZI-POZA txarangarekin.

Gaueko 11etan: Elgoibarko HARITZ dantza taldea eta PLAENTXI bikotea Goñati pilotalekuan.

Ondoren, dantzaldia BETI-JAI taldearekin.



Larunbata 24

Gazteen eguna

Goizeko 8etan: Txokolatada.

Goizeko 9etan: Mendaroko jendaurreko IV. MARGO LEHIAKETAREN hasera Kultur Etxean.

Eguerdiko 12etan: Sukaldari lehiaketa Azpilgoetako Elizpean. Eguerdiko 12,30etan: Txikiteoa, trikitrilariak alaituta.

Eguerdiko 2,30etan: Bazkari Herrikoia Azpilgoetako Plazan.

Arratsaldeko 5,30etan: Mendaroko jendaurreko IV. margo lehiaketaren sari banaketa Kultur Etxean.

-1go saria: 70.000 pezeta

-2. saria: 40.000 pezeta

-Herriko lan onenari: 25.000 pezeta
Aipamen berezia 14 urtetik beherakoari: 10.000 pezeta.

Arratsaldeko 6etan: Goitibeheren lasterketa Azpilgoeta kalean.

Arratsaldeko 7etan: Sokamuturra Azpilgoeta kalean.

Gaueko 11etan: Suzkorroberak Astondoa pirotekniaren eskutik.

Gaueko 11,30etan Goñati pilotalekuan dantzaldia IZADI taldearekin.

Atsedendian, Mendaroko LILIMOON taldearen kontzertua.



ARRATS

Pub

Zelaikoa Plaza. MENDARO. Tel. 75 50 58



TXIRRISTAKA

PUB

Goizeko 9etatik zabalik

Mendarozabal, 1. Tel. 75 61 39 MENDARO

- ♠ Urdai-azpiko iberikoa
- ♠ Txorixo iberikoa
- ♠ Gosariak
- ♠ Pintxo hotzak
- ♠ Pintxo beroak

Igandea 25

Santiago eguna

Goizeko 10etan: Diana Elgoibarko dultzaineroekin.

Eguerdiko 12etan: Meza nagusia Garagarzako elizan.

Eguerdiko 12,30etan: Kalejira BIZI-POZA txarangarekin.

Arratsaldeko 6etan: Goñati pilotalekuan, Nazioarteko Folklore jaialdia Colombiako "YURUMANGUI" taldearekin.

Ondoren: Sokamuturra Garagarzan.

Gaueko 10etan: Tanborrada, Mausitxa txarangarekin.

Gaueko 12etan: Dantzaldia LISKER taldearekin Goñati pilotalekuan.



Astelehena 26

Santana eguna

Goizeko 8,30etan: Diana txistulariekin.

Goizeko 10etan: Kalejira Zabale anaiak trikitrilariekin.

Goizeko 11etan: Meza, Santana basilizan.

Ondoren, Andoni Egaña eta Mikel Mendizabal bertsolarien eta Zabala Anaiak trikitrilarien saioa.

Arratsaldeko 6etan: Euskal Kirolen jaialdia Goñati pilotalekuan.

Ondoren: Sokamuturra Garagartzan.

Gaueko 11etan: Dantzaldia IZADI taldearekin, Goñati pilotalekuan.

NAHIA

ILEAPAINDEGIA

Azpilgoeta, 16. MENDARO Tel. 75 51 01

LEKU ONA

Taberna

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

Mendarozabal 13, Tel. 75 60 65



GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

*Eskulanean
saiatzen gara*

Pastelak

Tartak

Izozkiak

Bonboiak

TOKI ALAI jatetxea

- Bazkariak
- Pintxo hotzak eta beroak
- Gosariak

Goizeko 8etatik zabalik

Mendarozabal 2. Tel. 75 60 72

Asteartea 27

Umeen eguna

Goizeko 10etan: Kalejira trikitrilariekin.

Goizeko 10,30etan: Umeen Udalaren botere hartzea eta Kalejira dantzariekin.

Goizeko 11etan: Umeen meza Azpilgoetako elizan.

Ondoren: MENDAROKO GAZTEAK taldearen dantza saioa Azpilgoetako Plazan.

Eguerdiko 2,30etan: Goñati piklotalekuan laketgarrien aparailu parkea 6,30ak arte.

Arratsaldeko 7etan: Umeen tanborrada BIZI-POZA txarangak alaituta.

Gaueko 10,30etan: Kalejira BIZI-POZA txarangarekin.

Jaien amaiera.



EGANA



AINGERU GALLASTEGI

Kurutzpe elkarteko presidentea

-Defini ezazu Kurutzpe lau hitzetan.

-Mendaroko elkarte kulturala da eta futbola ezik, herriko kirol eta kultur ekintzak berak ermaten ditu. Olentzeroa, erregetako kabalgata, herri krosa, hitzaldiak, erakusketak...

-Zenbat bazkide ditu Kurutzpek?

-Banakakoak 140 edo izango dira eta familiarrak beste 100 bat. Ia Mendaroko herri osoa da bazkide.

-Zein paper betetzen du elkarteak Mendaroko bizitza kulturean?

-Ba, dagoen apurra berari esker da. Hasieran paper garrantzitsuagoa betetzen zuen, Udaletxerik ez zegoenean. Kurutzpe izan zen herri mailan ia dena antolatzen zuena. Udaletxearen ordezkio zela esan daiteke. Gero Udaletxea sortu zenean, kultura eta kirol arloak hartu zituen bere gain. Lehen adibidez, Kurutzperen liburutegia herriko liburutegia zen, orain, berriz, badago Udaleko liburutegia.

-Jaietarako gogorik?

-Bai. Hori beti.

-Nola bizi dituzue mendarotarrek jaiak?

- Herriko jaiak dira. Egitarau aldetik ez dago gauza handirik. Kanpoko batek beharbada ez du jai giroa bertako batek bezala bizi izango.

-Jaietako zein egun gustatzen zaizu gehien?

- Gazteen egunaz gain, Santixao gauetik Santana egunerako gaupasa. Santixao eguneko tanborradarekin hasi eta Santana goizeko bertsolari eta hamaiketakoarekin bukatzen den jai. Gazteen eguna kuadrillen eguna izaten da.

-Zer falta zaie zure ustez Mendaroko jaiari?

- Soberan behintzat sokamuturra. Ez zait batere gustatzen. Faltan? Dirua. Kurutzpek gazteen eguna antolatzen du eta gauerako kontzerturako ezin izan dugu guk nahi genuen taldea ekarri.



Fadek ileapaindegiak egindako zozketaren irabazlea Loli Hernandez izan da. Lolik ez zuen saria jasotzera joaterik izan eta bere orde, bere alaba Nekanek, Fadek ileapaindegiko Izaskun Landaren eskutik, Gabi jatetxean bi pertsonarentzako afari baterako gonbitea jaso zuen. Guztira, 110 irakurlek hartu zuten parte zozketan eta oraingo honetan Loli eta bere senarrak afari eder batez gozatzeko aukera izango dute.



Sukaldari onenak bezala, OHOk 6. eta 7. mailako haur talde hau sukalde lanetan aritu da Euskara Zerbitzuak antolatutako sukaldaritza ikastaroan. Uztailaren 5etik 15era bitartean, Zaharren Egoitzako sukaldean, Maria Jesus Garitagoitiaren ardurapean Argiñanoren kategoriako plater gozoak egiten ikasi dute. Ikastaroa amaieran, poz pozik, oroigarri gisa, argazkia atera zuten.

Udalak buruturiko prebentzio programak

Elgoibarko Udalak 8 orrialdeko informazio liburuxka argitaratu du Udalak buruturiko prebentzio programen berri emateko. Idatzian, Errotatxo elkartearen Gizarte Prestakuntza Batzordeko Zinegotziari buruzko jarrera kritikatzan du Udalak. Kultur eta kirol arloan, Udalak 24 lokal eman dizkie herriko hainbat talde eta elkarteri. Guztietan ura eta argia Udalaren kargu doa eta kasu batzutan, lokalen garbitasuna, mantenua eta konponketak ere bai. Honez gain, Udalak ia 5 milioi pezetako diru laguntza eman die herriko zenbait kultur eta kirol elkarteri.

Elkarte hauek hainbat iharduera eskaintzen dute: argazkilaritza, komikia, espeleologia, marrazketa, pintura, esmaltea, filatelia, musika, antzerkia, bertsolaritza, dantza e.a.

UDAKO OPORRAK BARRENen

Honako hau duzue uztailleko azken alea.

San Bartolomeetan ale berezi bat aterako dugu. Ordurarte, ondo pasa oporrak!!

Modesta Iriondo eta Jose Oñederra:

"Borondate handiko jendia ezagutu dugu"

Hitza emanda geneukan eta ezin faltatu. Joan den ekainean, Modesta Iriondo eta Joxe Oñederrak eginiko Santiagorako bidaiaren berri eman genizuen. Orain, aldiz, beraiekin lasaiago berbetan egiteko aukera izan dugu.

Mila pasadizu, anekdota, istorio... kontatzeaz gain, hemen azaltzen den argazkia bezalakoak erakutsi zizkiguten. Datozen lerroetan, Santiagorako bidaia egitera gonbidatzen zaituztegu.

-Santiagora bidaia oinez, zergatik?

-Sekula ez ginen bertan izan eta "Xacobeo urtea" zela eta, aurten egitea erabaki genuen. Kuriositatez beterik, reto bat bezala hartu genuen, ea kapaz izango ginen bidea oinez egiteko.

-Zein zailtasunekin topatu zineten?

-Eguraldia izan zen txarre-na. Euri asko egiteaz gain, elurra ere jasan genuen. Palentzian esaten ziguten bezala, aspaldiko partez, maiatz eskasena izan dugu aurtengoa. Horrez aparte, aurrez pentsaturik geneuzkanak: nekea, batzuetan lo ez egitea eroso... baina bestela, ondo prestatuak zaukagun bidaia. Goizez ibiltzen ginen gehien eta bazkal ondorako lagatzen genituen askenengo 6 edo 8 kilometroak, pasio modura. 28 egunetan egin dugu, baina hori bai, tokiak ezagutu.

-Pare bat anekdota?

-Adibidez, Indurainen herrian, Atarribian, ura eroztera sartu ginen denda batera eta ugazabak ez kobratzeaz gain, zera esan zigun: "Cuando lleguen a Santiago, recen por esta



pecadora" eta hunkitu egin zigun. Beste herri txiki batean, ordea, non andere zahar bat bere seme anormalarekin baitira bizilagun bakarrak, ez zegoen bakarrik pasatzerik, taldeka baizik. Bestela, zauzkaten bost txakur haundiak botatzen zizkizuten. Horrelako istorioak, asko bizi izan ditugu.

-Jende interesgarria ezagutu duzue bidaiari zehar?

-Bai eta batez ere, boron-

date handiko jendea. Denetik topatu dugu baina gehienbat, jende oso ona ezagutu dugu. Egunez, norbera bere pausura joaten zen eta afaltzeko, denok elkartzen ginen, hamabi bat inguru. Berbetan egoten ginen eta hamarretarako ohera. Harreman handia egin genuen belgiar, aleman eta Santurtziko batzuekin. Bisitatzen genituen herrietan, pertsona zaharrek hitz egiten genuen eta haiek ematen

ziguten lekuen berri. Bena-tan jende jatorra aurkitu dugu. Zenbait lekutan, ez ziguten kobratzerik nahi, peregrinoak ginelako.

-Zer gomendatzen diguzue bidaia berbera egitekotan bagaude?

-Europa aldetik, edozer eraman dezakezu, gustokoa, baina oinetakoei dagokionez, oso inportantea da egokiak eramatea. Boten artean, "treking" a egitekoak onenak. Eta zapatilak, aldiz, handiak eta zabalak eta, hori bai, baselinaz igurtzi oinak. Gero, bi pare galtzerdi mehe, josturarik gabekoak erabili genituen eta anpoilarik gabe iritisi ginen Santiagora. Bestalde, pisu gutxien eraman eta makila luze batez baliatu. Hori eta argazkiak ateratzeko makina, paisaia ikaragarriak ikusten baitira.

-Ba al duzue horrelako oporraldirik berriz egiteko asmorik?

-Oraindik ez behintzat. Berrito joateko gogoarekin gelditu gara. Agian, hemendik bi urtera edo, buelta bera, baina Asturia-setik edo.

Myriam Aldazabal

Nati Garitano *Euskadiko Kutxako langilea*



-Zer sentitzen da hainbeste diru esku artean edukitzean? -Ohitu egiten zara eta ezer ez, beste paper bat bezelakoa da.

-Inoiz lapurretan egin al dizute? -Bai, atrakatu. Izugarritzko bildurra...

-"Osasuna, dirua, maiatsuna" dio abestiak. Orden honetan?

-Osasuna lehena, "desde luego", eta maitasuna eta dirua.

-San Lorenzo ala San Pedro? -San Pedro.

-Oporretarako toki ideal bat? -Bueno, mendixa.

-Kafea ala deskafeinatua? -Kafea.

-Aste Santua ala karnabalak? -Aste Santua, oporrak dialako.

-Zeintzu ziren zure heroeak txikitan? -Ez naiz gogoratzten zeintzuk ziren.

-Etxeko ala kutxako lana? -Kutxako lana.

-Zure ustez zer falta da Elgoibarren? -Tokixa. Ez dago ibiltzeko tokirik. Falta? Parkiak, gune berdeak eta lasaitasun pixkat. Umiak, bizikletak, pertsona nausixak eta danak toki berdinetan ibili behar geralako.

-BARREN ordaindu beharko balitz erosiko al zenuke?

-Baleike, bai, bai. Baina orain ez hasi eh?...

-Zein pertsonaia ezabatuko zenuke munduko historiatik?

-Mordo bat. Baina kentzearren ez ditxut kentzen beraiek egindako gauzak, "asike" pertsonak kendu arren...

-Pijama ala kamisoi? -Kamisoi.

-Jende aurreko ala ofizinako lana? -Atzekoa, bai.

-Noiz lan gehien? -Orain, oporrak baino lehenago, sasoi honetan, eta Gabonetan.

-Nola ikusten duzu zure burua hemendik 20 urtetara?

-Egixa esan behar badot, bueno, ba hoixe danon antzera, nahiko kantsauta ta...

-Makillatzea gustatzen al zaizu? -Bai.

Edu Sanz

BERTSOTAN

MENDIA ALA HONDARTZA

Doinua: Antton eta Maria

Orain egin didate galdera bat latza mendia ala hondartza hau dala hau saltsa mendian belarra ta hondartzan arrantza bien helburua da egun on bat pasa biak gustoko ditut mendi ta hondartza (bis)

Uda sasoiak kostatzen oi degun moduan bainoa hartuz gero berotutakoan mendi aldera goaz gero gu neguan botak oinetan eta motxila lepuan zertako aukeratu bietara jua(n)bis

Alberto Gonzalez



OIERKI ASZENSOREAK
Urrutira deitu gabe bertakook eta segiduan konponduko dizugu aszensorea

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



PINTURAK

- Fatxadak
- Komunitateak
- Mota guztietako lanak

San Roke 30 behea Tel. 74 36 52

Antxon Gurrutxagak Galiziako futbol talde batean jokatu du

Antxon Gurrutxaga, Haundiko atezainak As Pontes herriko Endesa taldean jokatu du datozen bi denboraldietan. As Pontes-eko Endesa taldea hirugarren mailan dago.

Antxonek aspalditxotik kanpoko talderen batean jokatzeko gogoia zeukan eta aukera irten zaionean ez du ihes egiten utzi.

Haundik, berriz, Eibarko bi jokalaririk fitxatu ditu: bata, Eneko Barrenetxea, Azkoitiko Lagun-Onak taldeetik datorrena eta bestea, Antxon Trebiño, Mutrikuko Anaitasuna aldetik datorrena.

Aitor Etxaniz txirrindularia "Laxi Saria"ko garaile

Aitor Etxaniz elgoibartarra, *Muebles Olatz* taldekoa, pasa den igandean Mutrikun jokatu zen "IV Premio Colchon Laxi" lasterketako irabazlea izan zen. Aitorrek, 66 kilometroko ibilbidea egiteko 1h42m eta 07segundutako denbora behar izan zuen.

Bestalde, larunbatean korritutako "VIII. Mendaro Saria" lasterketan *Ciclos Iturriaga* taldeko Unai Agirrebeña elgoibartarra laugarren sartu zen helmugan. Igandean, Aztiriara igoeran, Unai bigarren postua



Jon Rementeria

"Familixatik urruti egotia kenduko naban saskibaloitik"


-Zein saskibaloitaldetan zabilta orain? -Aurten "Las Rozas"en jolasten egon naiz leengo dibiltsian. ACB-n ez, hurrenguan. Hurrengo denboraldirako ekipo bila nabil, oraindik ez dakit ezer. Aurten itxura danez gauzak zail daude. Jokalari asko dago ekipoik gabe eta ekipo askok ez dute plan-tilla itxi.

-Noiz arte saskibaloiko jokalaririk? -Ez dakit noiz arte baina daramadan erritmoarekin 3 edo 4 denboraldi geixao. Gauzak ondo joanda, ze nik lesio asko euki ditzut.

-Madrilen betirako? -Hori ere ez daukat pentsauta. Neri gustauko litzaidake honuntz etortzia, baina bueno, emaztiak lana Madrilen dauka... Lan bat topatuko banuke ikusiko gendun.

-Saskibaloiarekin lotutako lana izatea gustatuko litzazuke? -Ez daukat saskibaloiarekin jarraitzeko asmorik. Jarraitzekotan entrenadore bezala izan beharko litzateke eta entrenadore, behintzat, ziur ezetz. Organizazio kontuan, igual. Lagun batzuk hasi dira entrenadore kurt-silloetan baina ni ez.

-Ba al dago saskibaloiarekin aberasterik? -Bai, oso ona baldin bazera, bai. Oso ona izan bihar zera eta gainera



"ratxak" aprobetxatu bihar dira. Pasau diren bost edo sei urtiak nahiko onak izan dira baina orain berriz behera doa. Urte hoietan onak izan dianak euki dabe dirua eitxeko aukeria.

-Hain altua izanda, neurri arazoak izango dituzu, ezta? -Asko, erropiak, kotxiakin, ohiakin... gauza askokin. Ahal diazen gauzak neurrira eitxen ditzut, erropia adibidez. Kotxia ere haundixa erosten dut. Bentajak ere badauzka, soldadutzatik librau nintzan altuegixa izatiagaitxik.

-Saskibaloian ibili zaren urte guzti hauen balorazioa eginda, zer borratu eta zer gehituko zenuke? -Borrau, familixatik urruti egotia. Eta gehitxu, estudixuetan nik nahi naban guztia ez ateratzia.

● Adina: 29.

● Luzera: 2,02

● Oinetakoen zenbakia: 46

● Txandala ala bakeruak? Bakeruak

● Madril ala Elgoibar? Elgoibar

IDARRAGA
KAFEAK

Eguneroko errealdiak

San Frantzisko 17. Tel. 74 05 33-36 39

ANCHUSTEGUI S^a

ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11


Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

magu's

ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91

"Izarraitzetik Nanga Parbat-era" espedizioa gailurrera heldu da



↳ Aitor Esnaola eta Pablo Barrenetxea.

Pakistanetik

bidalitako fax baten arabera, Pablo Barrenetxea elgoibartarra eta beraiekin zijoan mediku murtziar bat Nanga Parbat-eko (8.125 metro) gailurrera heldu ziren pasa den hilaren 7an. Espedizioko bi kideak bakarrik egin omen dute gailurra baina mezuak zionaren arabera, espedizioko beste hiru kideak gailurrera

igotzen saiatuko dira eguraldi ona izan baitute. Nanga Parbat munduko bosgarren mendirik altuena da eta gailurrera igotzeko zailtasunak asko omen dira. Pablo Barrenetxea eta Murtziako medikuaz gain, espedizioa Aitor Esnaola elgoibartarrak eta Joanes Urrestilla eta Jon Garate azpeitiarrek osatzen dute.

COTTONFIELD BY CARLI GRV



GARATE

Datorren astelehena,
uztailak 26tik aurrera

BEHERAPENAK



MENDAROKO UDALAK
SANTIAGO ETA SANTA ANA
JAI ZORIONTSUAK
OPA NAHI DIZKIZUE
HERRITAR GUZTIOI

Elgoibarko Nazioarteko VII. folklore jaialdia

Datorren hilaren 29an Portugaleteko Elai-Alai Dantzari taldeari esker VII. Nazioarteko Folklore jaialdia ospatuko da Olaizaga kiroldegian. Gipuzkoako Foru Aldundia, Musika eta Dantza Fundazioa eta Udalaren laguntzaz antolatuta dago jaialdia. Aurten Haritz Euskal Dantzari Taldeaz gain, Haitiko "Bacoulou" Ballet Nazionalak eta Errumaniako "Doina Carpatilor" Folklore Konpainiak hartuko dute parte.



AZKUE

↳ Haritz Dantza taldea euskal folklorearen adierazgarri da.

Haritz Dantza taldearen saioak bi zati izango ditu. Lehen zatia Gipuzkoako dantzei buruzkoa izango da eta bigarrenak Ihauteri Festa izenburua izango du. Juan Inazio Iztueta zaldibiarrek jasotako Gipuzkoako Dantzak oinarritzat harturik zenbait dantza biltzen dituen saioa burutuko dute. Dantzatuko dituzten dantzak honako hauek izango dira: "Erreberentzia", "Belauntxingoa", "Uztai Haundi", "Zinta Dantza", "Soinu Zaharra", "Zortzikoa",

"Uztai txiki" eta "Erromeria".

Ekitaldian zehar Juan Antonio Urbeltzek, Argia Dantzari Taldeko zuzendariak prestatutako Soinu Zaharrak entzun ahal izango ditugu. Albokak, hainbatentzako ezezaguna den musikatresna honek, gaur egun Bizkai-ko Arratia bailaran bizirik dirau. Alboka jotzen entzuteko aukera izango da jaialdian Arratiako Ibon Koterone eta Kepa Lazareoren eskutik.

Haritz Dantza Taldeak ikuslegoarengana heldu nahi luke Ihauteri festa-

ren bitartez. Nekazal inguruko ihauteriek bizi-rik jarraitzen dute besteak beste, Altsasun, Aranon, Betelun, Goizuetan, Iturenen e.a.

Halaber, Baxe Nafarroa eta Lapurdi aldeko dantzak aukeratu ditu Haritz Dantza Taldeak jaialdirako. Honoko dantza hauek eskainiko dituzte: "Kaskarote Martxa", "Makil Dantza", "Teillagorri", "Sorgiñak eta Eskualdunak", "Kontradantzak" eta "Soka Dantza".

Bestetik, Haitiko "Bacoulou" Ballet Nazio-

nalak, nekazal dantzak, bititza eta heriotzarekin lotutako dantzak, jainko eta animalien adorazioa adierazten duten dantzak eta gerrari buruzkoak dantzatuko dituzte. Errumaniako "Doina Carpatilor" ikaslez osaturiko Folklore Konpainiak beraien herrialdeko zonalde ezberdinetako folklore dantzak eskainiko ditu.

Elgoibarko Nazioarteko Folklore jaialdia ostegunean, hilak 29, izango da gaueko 10,30etan Olaizaga kiroldegian.

IRIONDO Taberna

Jai zorientsuak!

Pedro Muguruza 2. Elgoibar

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

**ZALDUA
ITURGINTZA**

**GAS ETA BEROGAILU
INSTALAKUNTZAK**

Urasandi 26. Tel: 74 05 30

Etxebizitzak

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian. **Deitu 74 01 93 - 74 26 8Belen.**

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpoko aldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso ditzaketenezat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5. **74 35 09 - 74 31 66**

Iturgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak. **74 41 94. Sanchez.**

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzioentzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeke prest gaude inolako kosturik gabe. **74 25 35**

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet. **Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60**

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohe egiten da. **Deitu 74 28 56 gauez.**

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskarren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta. **74 12 95 Pello.**

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan. **94-6201918 ra (Gorka).**

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut. **74 25 63 Josu**

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N **74 14 80 Javi**

Garaje bat saldu edo alokatuko genuke. San Roken (pista beltzean). **74 08 79 Julian edo Maria Jesus**

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portalaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47**

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuek eta bildumak erosiko nitzuke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria. **Tel: 74 27 39**

Lana

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz badakit. **Ainhoa 74 16 89**

Udan klase partikularrek emateko prest nago OHOkoko haurrei. Magisteritza titulua eta ingenieritza ikasketak ditut. **74 28 53 Alazne.**

Salerosketak

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **Deitu 74 02 09 Ainhoa**

Umeentzako bizikleta eta uretako paipa bat salgai, biak prezio merkean. **Tel: 74 26 91**

Kontaktuak

Donostian pisua alokatzeko, pisu lagunak behar ditut. 23 urtetako Mutrikuarra naiz. **Idoia 60 35 34**

Etxe bat alokatu nahi dut. Altzariak baditu hobe. **Ainhoa 74 13 61 7etatik-9etara**

TROPIKO



San Frantzisko 48

SANDWICHAK

Gazta eta urdai azpikoa.....250
Begetala300
Hot Dog.....250

HANBURGESAK

Gaztarekin300
Begetala250
Oilaskoarekin300

PLATER KONBINATUAK

Solomoa, arraultze frijitua, patatak eta piperrak700
Oilaskoa, patatak eta entsalada700
Xerra, patatak, piperrak eta arraultza frijitua700
Bi arraultza frijitu, bacon, patatak eta entsalada700

GOSARIAK - BAZKAL AURREKOAK - POSTREAK



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR